

## ZER DA KUKUTXEZTULA?

Gaixotasun oso kutsakorra da, bakterio batek eragiten duena. Helduentzako, gaixotasun nahiko arina da, baina jaioberrientzako, oso larria izan daiteke, ospitaleratu beharra izaterainokoa, edo areago oraindik, haurra hiltzerainokoa.

## NOIZ HARTU BEHAR DUT TXERTOIA?

Txertoa jartzeko unerik egokiena haurdunaldiko 27. astetik 36. astera bitartekoa da, hartara, nahikoa denbora izango baituzu behar beste antigorputz garatzeko eta fetuari transmititzeko.

## ZERGATIK DA GOMENDAGARRI TXERTO HORI HARTZEA ORAIN?

Batetik, ikusten ari garelako, azken urteetan, igotzen ari dela kukutxeztul-intzidentzia txerto-estaldura handia duten herrialdeetan, eta, bestetik, kukutxeztul-agerraldiak gertatzen ari direlako.

## ZEIN TXERTO JARRIKO DIDATE?

dTpa (difteria-tetanos-kukutxeztul) txertoa, helduetan erabiltzeko baimendua. Gainera, tetanusetik eta difteriatik ere babesteko zaitu.

## ZERGATIK HARTU TXERTOIA HAURDUNALDIAN?

Txertoak sortzen dituen antigorputzak fetuari pasatzen zaizkio karenaren bidez, eta haurra babestu egiten dute, hura txertoa hartzen hasi arte bi hilabeterekin.

## ZERGATIK HARTU TXERTOIA HAURDUNALDI BAKOITZEAN?

Antigorputzen maila ez da nahikoa izaten hurrengo haurdunaldietan fetuari beharrezko babesa eskaintzeko.

## SEGURUA AL DA HAURDUNALDIAN TXERTOIA HARTZEA?

Aktibatu gabeko txertoa da, bakterio-zati batzuk besterik ez duena eta gaixotasunik sortu ezin duena; erabat segurua da bai amarentzat, bai fetuarentzat.

## TXERTO HARTU NUEN HAURRA NINTZELA, ZERGATIK HARTU BEHAR DUT ORAIN BERRIZ?

Bada, kukutxeztularen aurkako antigorputzak galdu egiten direlako denborarekin, eta ez direlako jaioberria babesteko adina izaten.

## HARTU AL DITZAKET GRIPEAREN ETA KUKUTXEZTULAREN TXERTOIA EGUN BEREAN?

Bai, noski. Izan ere, aktibatu gabeko txertoak dira, biak batera hartzeko modukoak.

## BA AL DU KONTRAIKAZIORIK TXERTO HORREK?

Kontraindikatuta dago txertoaren osagarriren bati alergia izanez gero, baina oso gutxitan gertatzen da hori.

ZALANTZARIK BADUZU, GALDETU LASAI ZEURE MEDIKUARI

ESKURAGARRRI DUZU TXERTOIA LEHEN MAILAKO ARRETAKE ZENTRO GUZTIETAN

GAIXOTASUNA, BATEZ ERE HELDUEK TRANSMITITZEN DIE HAURREI

GARRANTZITSUA DA DAGOKION ADINEAN EKITEA UMEAK TXERTAKETA-EGUTEGIARI



HAURDUN BAZAUDE

HAR EZAZU  
KUKUTXEZTULAREN  
aurkako  
TXERTOIA

ZURE HAURRA  
BABESTEKO